

.../...

ORAINALDIA				LEHENALDIA			
nor		nork		nor		nork	
ni	NAU	T	nik	ni	NINDU	T(da)	N nik
hi	HAU	K/N	hik	hi	HINDU	K/N(a/na)	N hik
hura	(3.p.sing.)	Ø	hark	hura	(3.p.sing.)	Ø	eN hark
gu	GAITU	GU	guk	gu	GINTU	GU	N guk
zu	ZAITU	ZU	zuk	zu	ZINTU	ZU	N zuk
zuek	ZAITUZTE	ZUE	zuek	zuek	ZINTU	zte ZUE	N zuek
haiek	(3.p.pl.)	(z)* TE	haiek	haiek	(3.p.pl.)	(z) TE	N haiek

* Subjektua (nork) **haiek** denean, eta objektua (nor) **gu, zu, haiek** denean.

- Perpausean, elementuek hartzen duten ordena (**nork, nor**) eta aditza sortzean hartzen dutena (**nor, nork**) ez da berdina, kontrakoa baizik.

zuk	gu	Zuk gu mendira eraman gintuzun. Tú nos llevaste al monte.	gaitu zu / gintu zu n
nork	nor		

Nor-nork lehenaldian

- Subjektua **nik** denean, lehenengo pertsonaren **t>da** bihurtzen da.
Nik zu autoz ekarri zintudan atzo.
Ayer te traje en coche.
- Subjektua **hik** denean, bigarren pertsonaren **k/n>a/na** bihurtzen da.
Hik gu ez gintunan ikusi.
No nos viste.
- Objektua **zuek** denean, **zte** pluralaren marka ezartzen da subjektuaren markaren aurretik, **zu** pertsonatik bereizteko.
Hark zuek afaltzera gonbidatu zintuzten.
Él os invitó a cenar.
Hark zu afaltzera gonbidatu zintuen.
Él te invitó a cenar.
- Objektuak **gu** edo **zu** direnean, eta subjektua **haiek, z** pluralaren marka ezartzen da subjektuaren markaren aurretik.
Haiek gu txangora eraman gintuzten.
Ellos nos llevaron de excursión.
Haiek zu ez zintuzten ezagutu.
Ellos no te reconocieron.
- Kontuz! Subjektua **hark** eta objektua **zuek** denean, eta subjektua **haiek** eta objektua **zu**, aditz-forma berbera erabiltzen da, **zintuzten**. Kasu horietan, testuinguruak bereiziko ditu.
Hark zuek ez zintuzten agurtu.
Él no os saludó.
Haiek zu ez zintuzten agurtu.
Ellos no te saludaron.

26

Osatu aditzak lehenaldiko taulari jarraituz.

1. NIK	HI	perretxikotara eraman	hindudan
2. NIK	HURA	perretxikotara eraman	
3. NIK	ZU	perretxikotara eraman	
4. NIK	ZUEK	perretxikotara eraman	
5. NIK	HAIEK	perretxikotara eraman	
6. HIK	NI	balletera gonbidatu	ninduan/nindunan
7. HIK	HURA	balletera gonbidatu	
8. HIK	GU	balletera gonbidatu	
9. HIK	HAIEK	balletera gonbidatu	
10. HARK	NI	plazan ikusi	ninduen
11. HARK	HI	plazan ikusi	
12. HARK	HURA	plazan ikusi	
13. HARK	GU	plazan ikusi	
14. HARK	ZU	plazan ikusi	
15. HARK	ZUEK	plazan ikusi	
16. HARK	HAIEK	plazan ikusi	
17. GUK	HI	itsasora eraman	hindugun
18. GUK	HURA	itsasora eraman	
19. GUK	ZU	itsasora eraman	
20. GUK	ZUEK	itsasora eraman	
21. GUK	HAIEK	itsasora eraman	
22. ZUK	NI	asko maite	ninduzun
23. ZUK	HURA	asko maite	
24. ZUK	GU	asko maite	
25. ZUK	HAIEK	asko maite	
26. ZUEK	NI	alkate izendatu	ninduzuen
27. ZUEK	HURA	alkate izendatu	
28. ZUEK	GU	alkate izendatu	
29. ZUEK	HAIEK	alkate izendatu	
30. HAIEK	NI	euskaraz bizitzera animatu	ninduten
31. HAIEK	HI	euskaraz bizitzera animatu	
32. HAIEK	HURA	euskaraz bizitzera animatu	
33. HAIEK	GU	euskaraz bizitzera animatu	
34. HAIEK	ZU	euskaraz bizitzera animatu	
35. HAIEK	ZUEK	euskaraz bizitzera animatu	
36. HAIEK	HAIEK	euskaraz bizitzera animatu	

... / ...

... / ...

- 27 Eman lehenaldian orainaldian dauden aditzak, eta orainaldian lehenaldian daudenak.

Adib.: Ez ditugu inon ikusi.

Ez genituen inon ikusi.

1. Amonak sagar-tarta goxoa egiten du.

.....

2. Guk taberna horretan ikusi zaituztegu.

.....

3. Zuek ez gintuzuen gonbidatu ezkontzara.

.....

4. Inauterietan ez zintuztedan ezagutu.

.....

5. Hitz horiek asko mindu naute.

.....

6. Haurrek harrituta utzi gintuzten.

.....

7. Nagusiak kalera bota zaituzte zuek.

.....

8. Haurrek asko maite zaituzte zu.

.....

9. Bankuek erabat engainatu zintuzteten.

.....

NOR-NORI-NORK

ORAINALDIA		
Nor	nori	nork
DI(ZKI)	T(da)	T
	K/N(a/na)	K/N
	O	-
	GU	GU
	ZU	ZU
	ZUE	ZUE
	E	TE

LEHENALDIA			
nork	nor/zer	nori	
N	I(ZKI)	T(da)	N
H		K/N(a/na)	N
Z		O	N
GEN		GU	N
ZEN		ZU	N
ZEN		ZUE TE	N
Z		E TE	N

- 28 Eman lehenaldian orainaldian dauden aditzak, eta orainaldian lehenaldian daudenak.

Adib.: Aitari barazki-purea egiteko eskatu dio.

Aitari barazki-purea egiteko eskatu zion.

1. Haurrei plastikozko jostailuak erosi zizkien.
.....
2. Liburu berriak erosi dizkigute.
.....
3. Iratiko basotik ekarri dizkiguzun perretxikoak onak dira.
.....
4. Argazkizaleak zuri-beltzeko argazkiak atera dizkit.
.....
5. Gosaltzeko, laranja-zukua prestatu zenigun.
.....
6. Ez dizkidazu ekarri eskatu dizkizudan liburuak.
.....

- 29 Meyers jaunaren ama Bostonetik Mamaroneckera etorri da, semearen etxean egun batzuk pasatzera, eta, bide batez, Garazi ezagutu du. Amonak kontu asko esan dizkio Garaziri bere familiari buruz, eta Garazik Facebooken idatzi ditu. Osatu Garazik Facebooken idatzi duena, parentesi arteko aditzak jokatzuz.

Gaur, Bostongo amona (1) (etorri) **etorri zaie** bisitan Ainarari eta Aritzi. Amona bizi-bizia eta sinpatikoa da. Eta oso berritsua! Sally (2) (ukan) izena. Amonak ni (3) (ez ezagutu), eta nolakoa (4) (izan) (5) (jakin nahi)

Amonak seme bakarra (6) (ukan), Philip, eta ahal duen guztietan (7) (etorri) Mamaroneckera bisitan. Philipek asko (8) (maite) ama, baina bakoitza bere etxean (9) (bizi): bat Bostonen eta bestea Miamin.

Amonak (10) (azaldu) (niri) Philipek Donostian (11) (ezagutu) Mirari 2003an, abokatu-bulego batean; 2005ean (12) (ezkondu), eta etxe bat (13) (erosi) Donostian. Lehendabiziko urteetan han (14) (bizi izan) Amona oso gutxitan (15) (joan) Donostiara, Bostondik bidaia luzea (16) (izan) eta. Egia esan, asko (17) (gustatu) Donostiako giroa eta lasaitasuna, baina Philipi beti (18) (esan) bera (amona) erosoago sentitzen zela hiri handietan. Lehen aldiz Euskal Herrira joan zenean, (19) (ez egon) luze Donostian. Gainera, (20) (ez gustatu hari) jendea hain kuxkuxeroa izatea.

Gero, Ainara eta Aritz (21) (jaio), eta, haiengatik, berriro (22) (saiatu) Donostiara egokitzen. Baina hilabete igaro ondoren, etxera itzultzeko gogoa (23) (sartu)





Asko (24) (maite) bilobak, baina gehiago (25) (estimatu) bere askatasuna.

Mirarik eta Philipek ere Ameriketan bizitzera etortzea (26) (erabaki) Oso eskaintza ona (27) (egin haiei) Miami abokatu-bulego batetik, eta aprobetxatu egin behar zutela (28) (iruditu) Mirarik zalantzak izan zituela (29) (kontatu niri) baina anaiak eta aitak etortzera animatu zutela. Donostiako etxea (30) (mantendu haiek) , oraindik.

Bueno, gero (31) (jarraitu) idazten, hurrek (32) (niri deitu) eta. Partxisean (33) (jolastu nahi) , eta amonari (34) (erakutsi nahi) zer ikasi duten nirekin.

M BALDINTZA HIPOTETIKOA

- Etorkizuneko hipotesiak egiteko erabiltzen da **orainaldiko baldintza** edo **hipotetikoa**.

Gurekin **etorriko balira**, bazkaltzera **joango ginateke**.
Si vinieran con nosotros, -as, iríamos a comer.

- Gainerako baldintza guztiek bezala, bi zati ditu: **baldintza** eta **ondorioa**.

Londresera joango banintz, metroa hartu beharko nuke.
baldintza ondorioa

Si fuera a Londres, tendría que coger el metro.
condición consecuencia

- Baldintzako eta ondorioko aditz nagusiek **-ko/-go** atzizkia hartzen dute.

Pastelak **ekarriko bazenitu**, denak **jango genituzke**.
baldintza ondorioa

Si trajeras pasteles, los comeríamos todos.

- Baldintza hipotetikoaren **aditz laguntzailea** indikatiboko lehenalditik dator, baina aldaketa batzuk egiten dira, honako formula hau aplikatuz: baldintzan lehenaldiko -en kendu egiten da, eta ondorioan, lehenaldiko -en kendu egiten da, eta, bukaeran, -ke jartzen da.

Baldintza hipotetikoa		Ondorio hipotetikoa	
ba + laguntzailea lehenaldian -en gabe		laguntzailea lehenaldian -en gabe + -ke	
ba + nintzen -en gabe	banintz	nintzen - en gabe + -ke	nintzateke
ba + zinen -en gabe	bazina	zinen -en gabe + -ke	zinateke
ba + zuen -en gabe	balu*	zuen -en gabe + -ke	luke*
ba + zenuen -en gabe	bazenu	zenuen -en gabe + -ke	zenuke
ba + zitzaidan -en gabe	balitzait	zitzaidan -en gabe + -ke	litzaidake
ba + zitzaion -en gabe	balitzaio	zitzaion -en gabe + -ke	litzaioke

- Singularreko eta pluraleko hirugarren pertsonaren **z > l** bihurtzen da.

zuen, zituen > balu, balitu, luke, lituzke
 zuten, zituzten > balute, balituzte, lukete, lituzkete
 zitzaidan, zitzaion... > balitzait, balitzaio, litzaidake, litzaioke

- Hona hemen baldintza hipotetikoaren aditz laguntzaileen taula. Goiko formula ez da beti betetzen, batez ere, **nor** kasuan.